


Etxebizitza



Etxebizitza
parkea,
beheraka

Goierriko etxebizitza parkeak beherako tendentzian jarraitzen du. Gehiago eraitsi da eraiki baino. Lazkao da hazkunde handiena izan duen herria.



ezarri

Ametsak
mosaikoz
eginda daude

Zubierreka Industrialdea 58
20210 Lazkao - Gipuzkoa
ezarri.com

Goierriko etxebizitza parkea txikitu egin da beste urte batez

● Etxebizitza parkeak 41 unitate galdu ditu, eta Zumarraga eta Ormaiztegin jaitsi da gehien kopurua.

● Etxebizitza antzintasunari dagokionez, 49,1 urte da batez bestekoa.

Izaro Villarreal

Goierriko etxebizitza parkea txikitu egin da Eustatek, Euskal Estatistiken Erakundeak, publiko egin dituen azken datuen arabera. 2023ko urtarrilaren 1eko datuak dira emandakoak, eta horien arabera, ia berrogeita hamar etxebizitza gutxiago daude eskualde osoan. 34.117 etxebizitza dira guztira, eta oro har etxebizitza gehiago suntsitu dira berriak eraiki baino.

Datu horiei erreparatuta ondoriozta daiteke iazko tendentzia berean jarraitzen duela Goierriko etxebizitza parkeak, nahiz eta beherakada ez den hain nabarmena izan. Hortaz, azken urteetako hazkundearen joera hautsi dela esan daiteke. 2019an zehar ia hirurehun etxebizitza berri kontabilizatu ziren eskualdean eta lehen aldiz 34.000 unitateko langa gainditu zen, inoizko hazkunderik handiena bizita. Urtebete geroago, ia erdira murriztu zen etxebizitza berriak eraikitzeko abiadura eta 2021ean etxebizitza gehiago izan ziren suntsitu zirenak, berriki eraikitakoak baino. Horregatik, 2022ko urte hasie-



Aramako etxebizitza multzoaren ikuspegia, goitik. GOTZON ARANBURU

ran ia ehun etxebizitza gutxiago zeuden eskualdean eta urtebete beranduago kontabilizatutako datuek ere beherakada horren jarraipena erakusten dute.

Datuak alderatuta, aurreko jardunaldietan baino orekatuagoa izan da galdutako etxebizitzaren eta eraikitakoen arteko banaketa, eta ez da iazko urteetan bezala herri bat besteengandik nabarmendua izan: Alzaga, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa, Ormaiztegi, Urretxu, Zegama eta Zumarragan 41 bizitoki galdu badira ere, 15 etxebizitza berri eraiki dira Atan (1), Ezkio-Itsaso (2), Lazkao (8), Legor-

34.000ko langatik gora jarraitzen du Goierriko etxebizitza parkeak

Ataunen (1), Ezkio-Itsason, Legorretan eta Olaberrian (2) eta Lazkaon (8) eraiki dira

rreta (2) eta Olaberrian (2). Iazko urtean, ordea, 147 etxebizitza galdu eta 59 etxebizitza berri eraiki ziren. Hortaz, ia ehun etxebizitza gehiago galdu ziren iazko urtean.

Batzuk, berdin

Halere, badira eskualdeko zenbait herri zenbaki berdinetan mantendu direnak. Esaterako, 2022an 55 etxebizitza berri eraiki ziren Ordizian, San Joan auzoan eraikitako blokeei esker. Azken bi urteotan, ordea, ez da aldaketarik egon eta 4.823ko zenbateko horretan mantendu da. Arama, Zaldibia, Zerain, Segura eta Gabiria ere berdin mantendu dira iaztik.

Biztanle gutxi dituzten herrietan hazkundera ez da horren nabaria izan.

Zumarraga da etxebizitza gehien galdu duen herria, zehazki 9 etxebizitza, baina ez da alde handirik egon etxebizitzak galdu dituzten gainontzeko eskualdeko herriekin: Ormaiztegi, esaterako, 7 etxebizitza galdu ditu, eta Beasain eta Zegamak ere bosna. Iaz, berriz, alde handiak egon ziren herrien artean: Olaberria izan zen etxebizitza gehien galdu zituen herria, 37 etxebizitzekin, eta tendentzia berari jarraitu zioten Idiazabal eta Zaldibiak, 21 eta 15 etxebizitza galduz, hurre-

Ibaiondo
A R O Z T E G I A
A L T Z A R I A K

Katea kalea, 5
Beasain www.mueblesibaiondo.com

943 16 40 40
639 631 640

MARGOGAI.com

Pinturak
Tresnak
Dekorazioa, industrialia
Makineria

DURAVAL

Lazkaibar 1-1 BEASAIN
Tel./faxa: 943 88 22 93 - lazkaibar@margogai.com

nez hurren. Beasainek 5 etxebizitza galdu baditu ere, eskualdeko etxebizitza parke handiena duen herria da oraindik, 6.595 etxebizitzekin. Ordiziak jarraitzen dio 4.823 etxebizitzekin eta atzetik ditu Zumarraga eta Legazpi, 4.804 eta 4.233 etxebizitzekin, hurrenez hurren. Aurreko aldie-tan bezala, bizitoki berri gehienak eskualdeko herri populatuenetan eraiki dira.

Etxebizitzaren ezaugarriak

Goierriko etxebizitzaren antzinatasunari dagokionez, batez beste,

49,1 urteko antzinatasuna dute, aurreko jardunaldian baino ia hiru puntu gehiago, orduan 46,51 urtekoa baitzen. Ezaugarrietan, baina, ez da aldaketa handirik eman azken urteotan. Oraindik ere Goierriko etxebizitza gehienak bloke edo eraikinetan pila-tzen dira, eta oraindik ere hamar eraikinetatik zazpi dute igogailua. Hazten ari den tendentzia da, bizitokiko irisgarritasuna bermatze aldera. Halere, badira oraindik bloke unifamiliarretan bizi direnak, hamar etxebizitzatik bat baita unifamiliarra.

Oro har, bainugela bakarrek eta bost gelako etxebizitzak nagusitzen dira Goierriko eskualdean, nahiz eta badiren bainugela bat baino gehiagoko eta gela askoko etxebizitza ugari. Tendentzia bera ageri da Euskal Autonomia Erki-degoan: familia etxebizitzaren hiru laurdenean 4 edo 5 gela (bainugela, egongela eta sukaldea barne) eta ia etxebizitza guztiek (%99,7k) gutxienez bainugela bat dute. Goierriira itzulita, eskualdean dauden bizitoki guztien %83ak du berokuntza sistemaren bat jarri-ta, izan zentrala, banakakoa edo

noizean behinekoa. Gainontzean, %41,6 da igogailua duten etxebizitzaren zenbatekoa. Horrez gain, ia bizitoki guztiek dute telefono linearen bat instalatuta, zehazki, guztien %98,7ak, eta hodi- den bidezko gas instalakuntza, berriz, %59,1ean. Ur korrontearen hornikuntzari dagokionez, ia denak dira publikoak (%97) eta gutxi batzuk, berriz, pribatuak (%2,4). Azkenik, etxebizitza guztien %38,9ak du ur bero zentrala.

Etxebizitzaren erabilera

Erabilerari dagokionez, azken urteotan etxebizitza ez nagusien kopuruak behera egin du eta ohiko etxebizitzaren kopuruak gora. Etxebizitza ez nagusiak, bere horretan, pertsona batek bizileku gisa erabiltzen ez dituen etxebizitzak dira. Hau da, biztanle baten etxebizitza nagusia ez den edo eguneroko bizitzarako erabiltzen ez duen etxea da. Normalean, jabeek bigarren etxebizitza gisa izaten dituzte. Azken kontaketa Eustatek adierazi bezala, 10.000 biztanle-tik behera duten udalerrietan jait-si da gutxien etxebizitza ez nagusien ehunekoa, zehazki %2,1, eta Goierriko eskualdea da horren adibide. Maila geografikoan ohiko etxebizitzaren kopuruak, berriz, %0,9ko hazkunde izan du Goierriko eskualdean, eta hazkuntza hori izan duen laugarren eskualdea da EAEn, Plentzia-Mungia, Urola Kosta eta Gorbeialdearen atzetik. ●

Etxebizitza parkea

HERRIA	BARIAZIOA	ETXEAK
Altzaga	-1	68
Arama	=	84
Ataun	+1	888
Beasain	-5	6.595
Ezkio-Itsaso	+2	342
Gabiria	=	257
Gaintza	-2	75
Idiazabal	-3	1.195
Itsasondo	-2	329
Lazkao	+8	2.705
Legazpi	-2	4.233
Legorreta	+2	719
Mutiloa	-1	147
Olaberria	+2	498
Ordizia	=	4.823
Ormaiztegi	-7	602
Segura	=	737
Urretxu	-4	3.162
Zaldibia	=	853
Zegama	-5	859
Zerain	=	162
Zumarraga	-9	4.804



Gabiriako ikuspegia. AIMAR MAIZ

ITURGINTZA PLAZAOLA

Erakusketa: Bide-Zar, 5 Zumarraga
943 72 13 70
plazaolaiturgintza@gmail.com

EGURDIAN Etxeko egurra

Pago egurra
Etxera eramaten da

Barrenkalde, 13 Urdiain
Tel. 608 57 03 57
egurdiain@hotmail.com

GAINZURI Urretxu

Gune Agencia Inmobiliaria

Elizkale 3, behea-Zumarraga
Nafarroa Etorbidea, 12-Beasain

KALE NAGUSIA 31
Beasain

943 037 975 | 682 630 393 | marian@gune-inmo.com

943 093 506 | 625 701 438 | miguelangel@gune-inmo.com

gune-inmo.com | f | y | in | @

«Zuekinen bezeroen beharretara egokitzen gara»

NAGORE MORENO TEJADOS

Finka administraria

Nagore Moreno Zuekin finka administrazio enpresako langilea da. Komunitateen kudeaketa eta bizilagunen elkarbizitza erraztea da bere egitekoa. Egun zazpi langile dira.

Lide Egizala

LAZKAO—2018an sortu zen Zuekin, duela sei urte. Finka administrazioan eta lan munduan esperientzia zabala duten hiru enpresaren elkarlanetik eratu zuten. Gaur egun zazpi lankidek egiten dute lan bertan.

Zein da zuen helburua finka administrazio bezala?

Zuekinen helburu nagusia bezeroek egunerokotasunean etxebizitzekin edota bizilagunen komunitateekin izan ditzaketen beharretara egokitzea da.

Gure asmoa bizilagun komunitateek eskatzen dituzten kudeaketak profesionaltasunez burutzea da, hala nola, eguneroko abisuak edota kontabilitatea modu garden eta argian eramatea, une oro bezeroei euren aurrezki nahiz ezbeharren kudeaketa azalduz.

Zein eginkizun betetzen dituzue?

Hiru eginkizun nagusi betetzen ditugu Zuekinen: Kudeaketa lanak, aholkularitza eta kontabi-

litatea. Horien barruan, berriz, lan hauek egiten ditugu: komunitateen eraketa, ezbeharrek bideratzea, bizilagun elkarten kudeaketa, batzarrak ematea eta horietarako deialdiak prestatzea, gertakarien kudeaketa, organo ofizialen diru laguntzen administrazioa, ordainketa eta kobrantzen kudeaketa eta zordunei bideratutako erreklamazioak. Zein onura ditu ardurak administrari baten esku uzteak?

Alde batetik, gure zerbitzuari esker bizilagunen arteko liskarrak ekiditen dira. Bestetik, gaur egungo egoerara egokitu den enpresa bat garela esango nuke. Orain, geroz eta gehiago eskatzen da lana telematikoki egitea eta gure bezeroei gehien kostatzen zaizkien lan horiek guk egiten ditugu.

Organismo ofizialekin esaterako, ezinbestekoa da telematikoki aritzea, eta bezeroei buruhausteak aurrezteko asmoz, finka administrazioek egiten dugu lan hori. Azken batean guri esker, lana eta ardura kentzen diegu bizilagunei.



Nagore Moreno, Zuekinen Lazkaon duen bulegoan. LIDE EGIZALA



«Bezeroari gertutasuna eta konfiantza eskaintzen diogu»

NAGORE MORENO

Finka administraria

Zertan desberdintzen da Zuekin Komunitatea beste administrazio enpresa batzuetatik?

Hizkuntzari dagokionez, esaterako, gure zerbitzu guztiak ele bitan ematen ditugu, hau da, posible den guztietan euskara hutsean bideratzen dira gestio guztiak. Bilerak ere euskaraz ematen dira ahal den kasuetan eta gure akta guztiak ele bitan idazten ditugu.

Bestetik, bezeroari gertutasuna eta konfiantza eskaintzeari ere lehentasuna ematen diogu. Horretarako, telefono bidezko arreta zuzena eta asteburu eta jai egunetan larrialdietarako whatsapp zerbitzua eskaintzen ditugu.

Gainera, komunitate bakoitzaren egoera ondo aztertzen dugu jarraipen indibidualizatua emateko.

Bezeroei dagokienez, azken urteetan ze joera eman da?

Azken urteetan gorakada nabarmena eman da. Tramitazioak eta lanak ugaritzen eta zailtzen

doazen heinean, gure zerbitzua beharrezkoa egiten da eta geroz eta gehiago dira kontratatzen gaituzten komunitateak. Are gehiago, gaur egun, etxebizitza bat egin orduko finka administrazio zerbitzua eskaintzen da zuzenean. Azken batean, gure helburua lana erraztea da eta hainbeste pertsona dagoen lekuan, beharrezkoa egiten da zuzenduko duen norbait egotea.

Datozen urteetarako ze joera emango dela uste duzue?

Geroz eta demanda handiagoa egongo dela esango nuke. Lehenago edo beranduago komunitate guztiak bukatu dute finka administrazio baten kudeaketa zerbitzua kontratatzen. Egun, agian ez da hain beharrezkoa, baina iritsiko da ezinbestekoa izango den unea. Etorkizunean, organo gorenak ezarritako eskakizunak betetzeko eskumen edo ahalmena seguru asko finka administrazioek soilik izango dute. ●

ZUEKIN

KOMUNITATEAK

Gure gunea. Zure gunea.

@ zuekin@zuekin.eus

Elosegi 20 · Lazkao · 943 88 65 53 ☎ 621 27 15 70

GERTUTASUNA
KOMUNIKAZIOA

KONPROMISOA
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA





EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu Instalatu Mantendu

40
1983-2023

urte zuzandik gertu

943 889 594

www.tapiaenergia.com

Bizitzak tentsiopean

Beasain, Ordizia eta Lazkao tentsio eremu izendatu zituzten 2023ko abenduan. Pasa den otsailean izendapena luzatzeko eskaera egin zuen Beasaingo Udalak. Tentsio eremu izateak alokairuan eragin zuzena du.

Lide Egizala

Azken urteetan, etxebizitzaren prezioek etengabeko igoera izan dute eta horrek etxeetako ekonomian eragin zuzena izan du, pertsonen erosteko ahalmena murriztuz. Duela urtebete Eusko Jaurlaritzak Beasain, Lazkao eta Ordizia tentsio handiko eremu izendatu zituen. 2023ko abenduaren 14an aurkeztu zuen Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako etxebizitzaren alokairuari eta tenkatutako eremuei buruzko azterketa eta, horren arabera, Goierriko hiru udalerriek izendapena jasotzeko baldintzak betetzen zituzten.

Zumarragak ere egin zuen eskaera, baina ez zituen bete beharreko kondizioak betetzen. Udalerri bat tentsio eremu izendatzeko bi neurgailu erabiltzen dira: alde batetik, diru sarreraren %30 etxebizitzaren mailegurako edo alokairurako enplegatzea, eta bestetik, azken bost urteetan alokairu edo salmentaren prezioaren igoera Kontsumo Prezioaren Indize metatua baino hiru puntu altuagoa izatea. Kasu honetan, %17 izango litzateke ezarritako muga. Nahikoa da bi baldintzetako bat betetzea tentsio eremu bilakatzeko.

Hiru udalerrietan emandako joera antzekoa izan zen. Hiruratan etxebizitzaren errenta or-



Beasaingo Kale Nagusiko irudia. Beasain tentsio eremu izateko eskaera egin zuen udalak otsailean. LOINAZ AGIRRE

daintzeko ahaleginaren portzentaia %30etik beherakoa izan zen, eta errentak azken bost urteetan izandako igoera, berriz, %17tik gorakoa. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak argitaratu zuen orduko txostenaren arabera, Beasainen errentak azken bost urteetan izandako igoera %17,39 izan da. Halaber, 2022ko batez besteko alokairu errenta 640,50 euroan zegoen. Bestetik, etxebizitzaren errenta ordaintzeko ahaleginaren portzentaia, %24,06 izan zen. Lazkaoaren kasuan, errentaren igoera azken bost urteetan %17,23

izan da eta 2022ko batez besteko alokairu errenta 591,8 euroan zegoen. Bestalde, etxebizitzaren errenta ordaintzeko ahaleginaren portzentaia %22,68 izan zen. Azkenik, Ordiziari dagokionez, errentaren igoera azken bost urteetan %18,67 izan da eta 2022ko batez besteko alokairu errenta 624,8 eurokoa. Txosteneko datuen arabera, etxebizitzaren errenta ordaintzeko ahaleginaren portzentaia %24,34 izan zen.

Azken txosteneko datuak
2024ko otsailean datuak eguneratu zituen Etxebizitzaren

Euskal Behatokiak eta azken txostenean jada Lazkao, Ordizia eta Beasain ez dira tentsio eremu bezala ageri. Hala ere, Beasaingo Udalak, etxebizitza eskuratzeko arazoa izan zuen hizpide otsailean egindako osoko bilkuran. Mahai ganean, Beasain tentsio handiko eremu izendatzeari buruzko mozioak jarri zituzten, bi izan baitziren. Bata, EH Bilduk aurkeztutakoa, PSE-EEk eta Podemosek babestu zutena. Bestea, EAJK aurkeztu zuena. Alderdi jeltzaleak gehiengo absolutua izanik, eurek aurkeztutakoa atera zen aurrera. Hain zuzen ere, tentsio handiko

eremu izendatzeko eskaera, tokiko erakundeek egin behar dute eta legearen arabera, izendapena lortzeko, memoria bat egin behar da. Memoria horretan biztanleen beharrak asetzeko adina etxebizitza ez dagoela arrazoitu behar da, datu objektiboen bidez; eta etxebizitza berriak osatzeko dinamika txertatu behar dira, etxebizitza eskuratzeko eskuragarria izan dadin, baldin eta aurrez aipatutako baldintzetako bat gutxienez betetzen bada. Izendapena hiru urtez egongo da indarrean, eta urtero luzatu ahal izango da, prozedura bera jarraituta. Horretarako,



Antio
CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK

**Eraikuntzarako
IRTENBIDEAK**

www.antio.es

Urola, 8 Pab. 21-22
20230 - Legazpi

943734574
606342357
606241258

construccionesantio@antio.es

OBRAK ETA MANTENIMENDU
INDUSTRIALA

ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIOAK

BIRGAITZE ETA ERREFORMAK

OBRA ZIBILA

OBRA BEREZIAK

MATTIN
elektrizitatea

Mantenimendua
Etxeko instalakuntzak
LED argiteria

Tel.: 627 505 687
mattinelektrik@gmail.com



Jasogailu zerbitzua



Ordiziako Zeberioenea eta Filipineta kalea. ORDIZIAKO UDALA



DATUAK

2023ko abenduko txosteneko datuak:

Beasain: Errentak izandako igoera azken bost urteetan: %17,39. Errenta ordaintzeko ahalegina: %24,06.

Lazkao: Errentak izandako igoera azken bost urteetan: %17,23. Errenta ordaintzeko ahalegina: %22,68.

Ordizia: Errentak izandako igoera azken bost urteetan: %18,67. Errenta ordaintzeko ahalegina: %24,34.

izendapenaren arrazoiek jarraitu egin behar dute, eta aurreko izendapenaz geroztik egoera konpontzeko edo hobetzeko hartutako neurri eta ekintza publikoak justifikatu behar dira. Tentsio handiko eremu izendatzeak, batez ere, alokairuaren prezioan ditu ondorioak: kontratuak amaitzean maizterrek kontratu hori hiru urtez baldintza berdinetan luzatzeko aukera dute; maizter berriei urteko eguneratzeko klausula bai-

no ezin zaie aplikatu alokairuaren prezioan eta azken bost urteetan alokatu gabe egon diren etxebizitzetan kasuan ere alokairuaren prezioak ezin du gainditu estatuak ezarritako gehienezko muga.

Goierrri mailan ez da ohikoena etxebizitzak alokatzea, ahal dela erostea baizik, hala diote Goierriko hainbat higiezin agentziatarako langileek. Lazkaoko Lamy higiezin agentziako Gorka Lamyk dio, alokatzen duten pertsonen

profila, «bikote gazteak» direla, soldata «onak» dituztenak. Hala ere, horien joera alokairua aldi baterako hartzea da, etxe bat erosteko aurretzen duten bitartean. Gazteez gain, «kanpotar jendea» da alokairuan bizi den beste gehiengo bat. Alokatzeko aukera bat den arren, Gune agentziako Miguel Angel Idiakezen esanetan, orokorrean, Goierri eskualdean oso etxebizitza «gutxi» dago alokatzeko, bai herri handietan

zein txikietan, eta alokairuan ateratzen diren etxebizitzak «bi egunetan» betetzen dira. Gaineratu du, herri handietan beti dagoela aukera gehiago, baina, hala ere, dagoen eskaintza oso baxua dela. Egun, Beasain da alokairu aukera gehien dagoen herrietako bat, baita garestienetako bat ere. EAE-ko alokairu-merkatuaren estatistiken txostenak dio, Goierriko alokairuaren batez bestekoa 585,3 euroan dagoela. ●



obra berrietarako ur eta berokuntza instalazioak
iturgintza - aire girotua - erreformak - koordinaketa

garmendia[®]
INSTALAKUNTZAK



Ezkiaga Etorbidea, 38 **BEASAIN** Tel/Faxa: 943 16 47 13
instalakuntzak@garmendia.eu

Egungo gazteek etxebizitza lortzeko arazoak dituzte, eta hori dela eta, Beasaingo Udalak alokairurako diru-laguntzak eskaini dizkiete gazteei eta mugimendu urridunei.

Gurasoen etxea uzteko afera

→ Errekurtso-ko argazkia: giltzak atean. CASATECLACLAVE

→ Urretxu-ko argazkia, 2022an. J. ZARANDONA

Lide Egizala

Geroz eta beranduago emantzipatzen dira gazteak, hori dio Gazteen Euskal Behatuko azken txostenak. Etxea erosteko zein alokatzeko prezioak garestiegiak dira gaur egungo gazteentzat eta zailtasunak dituzte gurasoen etxetik joateko. Txosteneko datuen arabera, EAEko gazte gehienak 30 urte inguruan edo beranduago emantzipatzen dira, hain zuzen ere, gazteen %4,5 baino ez dago emantzipatuta 25 urte bete aurretik. 25 eta 29 urte bitartean %35,7 bizi da beren kabuz, eta 30 eta 34 urte artean, berriz, %75era igotzen da emantzipatutako gazteen kopurua. Egiturazko arazo honi aurre egiteko asmoz, instituzioek etxebizitzarako hainbat laguntza eskaintzen dizkiete gazteei.

Eusko Jaurlaritzak, esaterako, martxan dauzka hainbat laguntza programa. *Emantzipa* egitasmoaren bitartez, esaterako, hilean 300 euroko laguntzak ematen dizkiete emantzipazio prozesu bat hasi duten edo hasiko duten 25-29 urte bitartekoei. *Gaztelagun* deiturikoa da beste laguntza programetako bat. Honen ka-

suan, 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairu errentaren ehuneko bat ordaintzen die hilerro, betiere, bete beharreko baldintzak betetzen direnean.

Goierriren egoera

Goierriko eskualdeari dagokionez, Beasaingo Udalak pasa den martxoan jakinarazi zuen, aurretik ere etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak eskainiko zizkiela herriko gazteei eta baita mugikortasun urria duten pertsonen oraingo deialdian. Udalaren esanetan, laguntza hauen xedea eskaera egiten duten errentarien ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da. Iazko urtera arte Legazpin ere eskaintzen zituzten diru-laguntzak, baina aurretik ez da deialdirik sortu. Beasaingo diru-laguntzen kasuan, eskaera bakoitzeko hilean 100 eta 250 euro emango dira, gehienez hamabi hilabeteko epealdi baterako. Horiek eskuratzeko baldintzetako batzuk dira hauek: 18 eta 35 urte bitartean izatea, eskatzailea Beasainen erroldatuta egotea gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin etenik gabe, Beasaingo udalerriko etxebizitza libre bat izatea eta eskaera egiten duten pertsonaren ohiko eta etengabe-ko etxebizitza izatea gutxienez



Gazteen %4,5 baino ez dago emantzipatuta 25 urte bete aurretik EAEn

Beasaingo Udalak hilean 100 eta 250 euro emango ditu eskaera bakoitzeko

12 hilabeteko iraupena duena. Horiez gain, eskatzailearen diru-sarrera ere kontuan hartuko den beste baldintzetako bat da.

Hain zuzen, faktore ugari eragiten dute gazteen emantzipazio berantiarrean. Gaur egungo langabezia tasa %12,6koa bada ere, soldatak ez dira alokairuak ordaintzeko nahikoa eta gazteek ez dute beren kabuz bizitzera joateko aukerarik. Pasa den abenduan

Beasaingo Ernai antolakundeak jakinarazi zuenez, EAEko 18 eta 34 urte artekoen batez besteko soldata 1.297 eurokoa da, duela hamar urtekoa baino 150 euro gutxiago. Urteko soldataren batez bestekoari dagokionez, 18 eta 24 urte bitartean 4.490 euro dira eta 25 eta 29 urte bitartean, berriz, 16.069 euro. Beasaingo alokairuei ere erreparatu zien eta batez besteko prezioa 675 euroan dago. ●

 **GEURIA**
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Ittola industrigunea C-4 Beasain
Errementari kalea 8 Tolosa

www.geuria.com

 **Mstudio**
arkitektura bulegoa

Mstudio bulegoak arkitektura zerbitzuak baino gehiago eskeintzen ditu; gertutasuna, aholkularitza eta zure helburuekiko konpromezu eta inplikazioa.

arranomendia 2, 3210 bulegoa | 20240 Ordizia
T. 677 983 036 | mirenzubeldia@mstudio.eus | www.mstudio.eus

 **Gaztelu**

Iturgintza
Berogintza

☎ 943 88 80 29 faxa: 943 16 14 64
gaztelu.koop@gmail.com
Esteban Lasa, 7 BEASAIN

Etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak



Barandiaran

▣ berrikuntzak | ▣ materialak | ▣ berriztagarriak



Etxebizitza sozialak abian

Azken urteotan ugaritu egin dira etxebizitza sozialen sustapenak Goierrin. Udalerrri batzuetan, duela gutxi jarri dituzte abian proiektuak, baina badira dagoeneko martxan dauden batzuk ere. Zeraingo kasua da azkeneko honen adibideetako bat.

Lide Egizala

Eskualdean badira etxebizitza sozialak martxan jarri dituzten hainbat udalerrri. Pasa den ekainaren 18an Ordiziako Udalak, Ordizia Lantzen udal sozietateak eta Visesa sozietate publikoak hitzarmena sinatu zuten San Juan auzoan babes ofizialeko alokairuko 60 etxebizitza sustatzeko. Adur Ezenarro Ordiziako alkatearen esanetan, proiektu honen helburua «udalerriko pertsonen etxebizitza-premiei erantzutea» da, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak etxebizitza «duin eta irisgarria» izateko eskubidea azkartzeko hartutako konpromisoaren barruan kokatzen da. Etxebizitza horietako baten esleipendun izateko, Etxebizitza-Euskal Etxebizitza Zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzeaz gain, udalerrrian gutxienez urtebetez jarraian edo 3 urtez txandaka errolatuta egon dela egiaztatu beharko da azken 5 urteetan.

Legazpiren kasuan, udalak, Ezkurrenean etxebizitza sozialak egiteko proiektua du esku artean. Apirilean inkesta bat luzatu zien herritarren eraikinaren edukia eta funtzioa zehazteko, eta erabilera horren aldeko agertu ziren legazpiarrak. Galdetegiari erantzundako 96 pertsonen artean, gehiengoari Ezkurrenea eraikinean alokairu



Legazpiko Ezkurrenea auzoko etxebizitza sozialak. TERE MADINABEITIA

publikoko etxebizitzak garatzea ideia proposa iruditu zitzaion, hain zuzen ere, %73ak baiezkoa eman zuen eta %64,5ak beraien arazoari irtenbidea emateko aukera egokia izango litzatekeela esan zuten. Zumarragako Eiza auzoan ere 108 etxebizitza sozial egiten ari dira. 2022an hasi ziren obrak egiten eta 2025rako amaitzea da asmoa. Etxebizitzak funts autonomiko eta europarrek finantzatu dituzte.

Zeraingo proiektua

Beste herrietan ez bezala, Zerainen duela lau urte ireki zituzten

etxebizitza sozialak. Antxaputzu-ko biribilgunearen ondoan daude kokatuta. 2020ko uztailean sinatu zituzten bertan biziko ziren lehenengo zortzi gazteek kontratuak, eta abuztuan egin zuten herritarrekin batera inaugurazioa. Hala ere, Zeraingo Udalak 2016tik zeukan proiektu hau eskuarte.

Urte hartan Atxondora joan ziren bertako etxebizitza sozialen proiektua ezagutzera eta 2017a finantzaketa bilatzeko erabili zuten. Eusko Jaurlaritzatik 380.000 euroko diru laguntza jaso zuen udalak, eta proiektuak 550.000 euroko aurrekontua izan zuen

guztira. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko eta bakarrik zeuden adinekoek herrian bizitzeko aukera izateko helburuarekin erai-ki zituzten. Zortzi etxebizitza dira denera, herrigunetik gertu kokatuak, eta alokairu publikoan eta sozialean oinarrituta daude. Prezioei dagokienez, tasatuta daude eta diru sarreren eta etxebizitzaren neurriaren arabera dira.

Etxebizitza hauen bereizgarri nagusienetako bat da bioeraikuntzan oinarritutako eraikinak direla, hau da, kontsumo txikikoak eta material ekologikoez egindakoak dira. Proiektuaren hasierako

fasean, udalak inkesta bat pasazien herritarrei haien eskaerak entzuteko, eta bertan, gazteek alokairua nahiago zutela jakinarazi zuten. Prezioari dagokionez, gehienez ere 300 euro ordaintzeko prest zeudela agertu zuten. Etxebizitzak urtean 27.125 euro baino gutxiago irabazten duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat dira.

Herritarrek lehentasuna duten arren, edonork izen eman dezake, inongo jabetzarik ez duen bitartean. Gaur egun, etxebizitza guztiak beteta daude eta udalak balorazio «oso ona» egiten du. ●



AGIRRE ERAIKUNTZAK



GARABI, POLIPASTO ETA MONORAILAK
INSTALAZIOA
KONPONKETA
MANTENIMENDUA
BERRITZEA

Senpere, 12

Lazkao

Tel.: 943 88 15 57

www.agirre-eraikuntzak.eus



Nortek
Elektrizitate eta Sistemak S.L.

Areso 16, behea
LAZKAO

- Elektrizitatea
- Telekomunikazioak
- Informatika
- Eguzki energia

tf. 943 088 003

web www.nortek.eus

mail info@nortek.eus

«Jendea izena ematera animatzen dut, ni gustura nago»

IRATXE PEREZ

Zeraingo etxebizitza sozialeko bizilaguna

2020an inauguratu zituzten Antxaputzuko etxebizitza sozialak Zerainen, eta egun, denak beteta daude. Herritarrek lehenetsua badute ere, ez da beharrezkoa bertakoa izatea eskaera egiteko.

Lide Egizala

ZERAIN— Iratxe Perez Irungoa da izatez, baina pasa den uztailean, urtebete egin zuen Zerainen bizitzeko. Antxapututxoko biribilgunearen ondoan eraikitako etxebizitza sozial batean bizi da eta «oso gustura» dagoela dio. Bere asmoa beste lau urterako bertan bizitzea da.

Zer dela eta erabaki zenuen etxebizitza sozial batean bizitzea?

Proiektua ezagutu nuen, baldintzak betetzen nituela ikusi eta independizatzeko aukera polita iruditu zitzaidan, bestela, gaur egun bakarrik bizitzea ezinezkoa da. Etxebizitza hauetan zure diru sarreraren arabera eta bizilekuaren metro karratuen arabera ordain-

tzen da, eta hori itzela da. Alokairuaren kostu honi erabilerari lotutako beste gastu gutxi batzuk gehitzen zaizkio, baina hileroko prezioa guztiz bideragarria da. Oker ez banago, gehieneko alokairu kostua 300 eurotik ez da pasatzen, eta zuretzako bakarrik den etxe bat izateko oso prezio duina da.

Zure kasuan zaila izan al da baldintzak betetzea?

Gaur egun diru sarreraren gehien-goia igo egin dute, urtez urte eguneratu egiten baita, baina ez dakit zehazki zenbatean dagoen orain. Egungo egoerarekin ez da zaila baldintza horiek betetzea. Etxebizitzaren prezioak ikusita, norbaitek aurreztu eta bat erosteko aukera izatea geroz eta beranduago gertatzen da bizitzan,



Perez beste lau urtez biziko da Zerainen. LIDE EGIZALA

beraz, gazte izanda, eta soldata arrunt bat edukita, baldintzak betetzea nahiko erraza da.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Oso ona, etxe hauek lehenengo aldiz nire etxe propioa izateko aukera eman didate, orain arte independente bizi izan naizen harren, beti partekatu behar izan dut etxea. Etxe hauek hutsik datoz, baina zure aurretik etxe berean egondakoarekin harremanetan jartzen zaituzte eta askotan, altzariak eta bestelako gauzak bertan uzten dira. Gainera, erosten duzun guztia dagoeneko zurea denez, pixkanaka inbertsio txiki bat egitea ahalbidetzen dizu, gero beste etxe batetara bazoaz zure altzariak eraman ditzakezu eta ez zara zerotik hasten.

Etxe guztiak beteta al daude?

Bai, udalean zerrrenda bat dago eta bat joaten den momentuan hurrengoari deitzen zaio. Pertsonalki, jendea izena ematera animatzen dut. Noiz deituko dizuten ez dakizun arren, momentuan erabaki dezakezu interesa duzun ala ez, beraz, ez duzu ezer galtzen. Nire kasuan, oso gustura nago.

Etxebizitza hauek egiteko eredu ekologikoa erabili da, zertan nabari da hori?

Etxebizitza hauek *Passive House* kontzeptua jarraituz diseinatu ziren. Mota honetako eraikinek jasangarritasuna eta energia-eraginkortasuna dute helburu. Gure etxebizitzaren berogailu sistema, adibidez, aeroterminia bidezkoa da, eta horrek, etxea erraz eta merke berotzea ahalbidetzen du. ●



«Oso esperientzia ona izaten ari da. Etxe hauek lehenengoz nire etxe propioa izateko aukera eman didate»

«Etxebizitza hauetan zure diru sarreraren eta bizilekuaren metro karratuen arabera ordaintzen da»

IRATXE PEREZ

Etxebizitza sozialeko biztanlea

ETXEAN JADA

KUTXABANK HIPOTEKAK

Erraz jartzen dizugu

Kutxabank, SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago. 5226 liburukia, 0 liburua, BI-58729 orria, 1. folioa, 1. inskribazioa.



Prezioen menpe Goierriin

Eskualdeko industria sare oparoak eragin zuzena dauka etxebizitzaren prezioan, eta azken urteetako joera goranzkoa izan da. Hala ere, egoera aldatu egiten da herri bakoitzaren kokapen eta irisgarritasunaren arabera, besteak beste.

Lide Egizala

Goierrin eskualdea «mikroklima» bezala definitzen dute Goierriko higiezin hainbat agentziak. Hain zuzen ere, eskualdeko industria sare oparoak eragin zuzena dauka etxebizitzaren prezioan, eta azken urteetako joera «goranzkoa» izan da. Horien esanetan, eskualdeko herririk garestiena, Beasain da, inguruan dauden Indar, Irizar eta CAF enpresak direla eta, besteak beste.

Enpresa horiek «indartsuak» izateak eta, oro har, herritarrek soldata «onak» irabazteak, bizitza maila igotzen du, eta horrek, etxebizitzaren prezioan eragina du. Faktore horiez gain, kokapena eta «konexio ona» izatea ere badira ezaugarri erabakigarrietako batzuk prezioa ezartzeko garaian. Hain zuzen ere, horren ondo kokatuta ez dauden herrietan, eta industria ere eskasagoa denetan, prezio merkeagoak aurki daitezke, oro har. Horien artean aipa daitezke Ataun edo Idiazabal esaterako. Hala ere, herri txikien eta handien arteko aldea txikituz joan da pixkanaka. Goierri garaia eta behearen artean ere posible da alderaketa bat egitea. Gune higiezin agentziako Miguel Angel Idiakezek dio, orokorrean, Goierri beheko herritarren ahalmen ekonomikoa «handixeagoa» dela Goierri garaian bizi direnena baino, industriak betetzen duen



Lazkaoko Iturrialde auzora gazte asko joaten ari da bizitzera. LIDE EGIZALA

eginkizunagatik. Horren ondorioz, etxebizitzaren prezioa ere «altuagoa» da.

Lazkaon goraka

Azken urteetan aldaketa nabarmena pairatu duen herrietako bat da Lazkao. Espainiako INE estatistika institutuak kaleratutako datuen arabera, 2021. urtean lehenengoz 6.000 biztanleko langa gaintu zuen herriak, eta pixkanaka goraka doan zifra bat da. Biztanleria igotzearen arrazoi nagusia etxebizitzaren eskaintza handian aurkitu behar da. Hain zuzen ere, etxebizitzaren berrien sustapen

ugari egiten ari baitira azken urteetan. Horietako bat da Iturrialdea auzoko proiektua. Lazkaoko Lamy higiezin agentziako Gorka Lamyk dio «familia gazte» askok aukeratu dutela bizileku eremu hau, etxebizitzaren «berriak» izateaz gain, prezio «eskuragarriagoak» dituztelako. Herriaren beste aldean ere hainbat etxe eraikitzen ari dira, Esparru auzoan. Hauetara doazen gehienak ere «gazteak» direla diote agenteek. Gaineratu dute, inguruko herrietako jendea etortzea dela joera nagusia, gaintzeko udalerrietan obrarako zoria falta baita. Egund, eskual-

de mailan etxebizitzaren eskaintza gehien dagoen herria da Lazkao.

Erosleen testigantzak

Iturrialdea auzoan bizi da A.G. duela urte eta erditik. Lan baldintza finkoak lortu zituenean hasi zen etxebizitzaren begiratzen eta Lazkaon erostea pentsatu zuen familia eta lagunak bertan dituelako. Alokairuan bizitzea ere planteatu bazuen ere, egungo prezioekin etxebizitzaren batean sartzea aukera aproposagoa iruditu zitzaion, epe luzera begira. Bizilekua aukeratzeko orduan, batez ere, prezioa eta mailegu

mota finkoa izatea hartu zituen kontuan, baina kokalekua, etxera sartzen zen argi kantitatea, etxebizitzaren berria edo bigarren eskukoak izatea eta gela kopurua ere kontuan hartu zituen. Horrez gain, sarrerarako dirua aurreztuta bazuen ere, gaintzeko mailegua eskatu behar izan zuen bankuan.

A.M.-k berriz, Esparru auzoan erosi du pisua, baina obrak amaitzeko zain dago. Lazkao aukeratu zuen bertakoa delako eta geroz eta «giro» animatuagoa dagoelako herrian. Kokalekuari eta prezioari erreparatu zion etxebizitzaren aukeratzeko orduan. Bere esanetan,

TXINDOKIrent

KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ
Makinariaren alokairua eta salmenta

alquilerestxindoki.com

943 070 700

Altune, 4 D-E, 2012 OLABERRIA



Udazkenarekin batera kimaketa eta egur lanen garaia heldu da, Txindokin lagungarria izango zaizun makinaria izango duzu eskuragarri alokairuan; motozerra teleskopikoak, elebadorak, egur birrintzaileak, ezpala egiteko makinak...

etxe berria izateko eta daukan baldintzak kontuan hartuta, «oso ondo» dago. Lazkaotar honek dio, ez zegoela bere planetan pisu bat alokatzea. Alokairuak «oso garesti» daudela eta horretan gastatu beharreko diruarekin, nahiago hipoteka ordaintzen joatea eta etorkizunean, berea izango den zerbait edukitzea. Honek ere aurreztutako diruaz gain, mailegua eskatu behar izan dio bankuari. Biek argi diote egungo egoera nahiko «gordina» dela. Haien iritziz, etxebizitzak «geroz eta garestiago» daude eta herritarren erosteko ahalmena «ez da» horri aurre egiteko bezain bestekoa. Gaineratu dute, zaila dela gurasoen etxetik joatea faktore asko daudelako tartean. Horietako batzuk, «lan egonkorra» izatea eta prezio «oso altua» ez duen etxebizitza lortzea. Erantsi dute, aisialdian ere eragin diela etxebizitza bat erosteak. Orain, familia zein lagunekin planak egiterako garaian, gehiago begiratzen diote diruari.

Alokairu testigantzak

A.A. Lazkaoko alokairu etxe batean bizi da, duela lau hilabetetik.

Egun, Lazkao da etxebizitza eskaintza gehien duen udalerrria

Gurasoen etxetik joateko beharra sentitu zuen, eta etxe bat erostea, ekonomikoki «zaila» izateaz gain, «finkoegia» iruditu zitzaion momentuan behar zuenerako. Hori dela eta, alokairuan etxebizitza hartzea erabaki zuen. Bizilekua aukeratzeko orduan baldintzei eta prezioari erreparatu zien

gehienbat, bere soldataren zatirik handiena ez baitzuen alokairurako izatea nahi. Egun, bere soldataren laurdena gutxi gorabehera, baliatzen du alokairurako. «Asko» den arren, bere bizimoduari ez diola «gehiegi» eragiten dio, beste edozein etxebizitzatan erdia utzi beharko lukeelako. A.A.-k bere egoera berezitat jotzen du, ez baita ohikoena 23 urterekin lan baldintza onak izatea eta «nahiko finkoa» den lanpostua bat topatzea. Bere inguruan «oso gutxik» lortu dute gurasoen etxetik independizatzea. Gaztearen esanetan, «egonkortasun ekonomiko falta» eta etxebizitzaren prezio «izugarri altuak» dira egoera honen arrazoi nagusiak. Azken urteotan, «ia ezinezko» bihurtu da pertsona bakarrik ordaindu dezakeen etxe bat topatzea, dio.

G.O.-ren kasuan, Olaberriari bizi da alokairuko etxebizitza batean. Orain «oso gustura» bizi den arren, bere egoerak baldintzatu duelako bizi da alokairuan. Prezioaz gain, etxebizitzaren kokalekuari erreparatu zion gehienbat hori aukeratzeko orduan. Lana, lagunak eta familiagandik «gertu» egotea zen lehentasunetako bat.



Higiezin bat errentan dagoela adierazten duen kartela. HITZA

Bere iritziz, gaur egungo egoera «jasanezina» da. Gaineratu du, gurasoen etxetik joatea, eta bereziki, bakarrik joatea, «ezinezkoa» dela familiako babes ekonomikorik gabe. Egun, alokairuan eta hilabeteko gastuetan soldata erdia baino gehiago baliatzen du, eta horrek, aisian nahiz osasun mental zein fisikoan inbertitzeko aukerak «murriztu» dizkio. Bestalde, arlo profesionalean ere formatzen jarraitu nahi duen arren, ezin duela dio.

Egungo egoeraren aurrean, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuek abenduaren 14rako manifestazio deia luzatu dute.

Deialdiaren helburua etxebizitza eskubideak aldarrikatzea da. Bilbon izango da; 13:00etan hasiko da Plaza Biribiletik. Goierriko Etxebizitza Sindikatuan parte hartzen duten kideak ere bertan izango dira. Pasa den urtean sortu zuten Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Soziala. Bilbon egin zuten aurkezpen agerraldia, eta bertan, Etxebizitzaren Aldeko Borrokarako Proposamen Politikoa argitaratu zuten, sindikatuak oinarri izango zuena. Doako etxebizitza, pertsona guztientzako etxebizitza, kalitatezko etxebizitza eta eskubide politikoen hedapena barne hartzen ditu programak. ●

LARREA BIZITZAK S.L.
Promociones de viviendas
605710671

1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak terraza eta lorategiarekin
240.000€-tik garajea barne

ORDIZIAKO BUSTUNTZA ETXEALDEA 7.ean
ETXEBIZITZA ETA GARAJE PROMOZIO BERRIA

Bizigune-n sartuta dauden etxebizitzetzi %99ko hobaria

● 438 etxebizitza huts daude, horietatik 39 Bizigune programan.

LEGAZPI— Legazpiko Udalak %99ko hobaria emango die Ondasun Higiezin gaineko Zergan Eusko Jaurlaritzaren Alokabide sozietate publikoak kudeatzen duen Bizigune programan sartuta dauden etxebizitzetzi. Herrian dauden etxebizitza hutsak alokairu merkatuan sartzea sustatzeko neurria da.

Udalak emandako datuen arabera, 438 etxebizitza huts daude Legazpin egun, eta horietatik 39 etxebizitza daude Bizigune programan inskribatuta. Udalerriko etxebizitza eskaria arintzen laguntzea eta etxebizitza hutsen alokairua dinamizatzea da egitasmoaren helburua. 2025ean

hasiko dira ondo bidean hobari berria aplikatzen.

Sei urterako eskaintzen die jabeetzi etxebizitza hutsen alokairua Bizigune programak, Eusko Jaurlaritzak bermatutako hileko errentarekin, jabetzak kontserbatu eta mantentzeko eta obrak finantzatzeko.

Lokal hutsak

Bestalde, lokal hutsetzi dagokienean, horiek merkatura ateratzeko eta abian jartzeko proposamena aurkeztu zuen EH Bilduk ekainean, koalizioaren esanetan, «tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak indartzea ezinbesteko tresna» delako Legazpiti bizitasuna emate aldera. Neurrien artean dago kaletik zuzeneko sarbiderik ez duten lokalak birkokatzeko laguntzak ezartzea. ●GH

Eustaten arabera, Ordizian dago EAeko immigrazio tasarik altuena (%18,8) eta elkarri estuki lotuta jarraitzen diote Zaldibiak (%14,9) eta Beasainek (%14,5).



← 2023an Siriako errefuxiatuetzi bidaltzeko eginiko diru eta janari bilketa. HOTZ LEGAZPI

Etorkinek, etxebizitzarako irisgarritasun eza

Izaro Villarreal

Goierriko immigrazio tasa gero eta altuagoa den honetan, etxebizitza duin bat lortzea benetako erronka bihurtu da etorkinentzat. Egoerarekin kontzientziaturik, Legazpin bizi diren errefuxiatuetzi laguntzeko lan egiten du Hotz Legazpi, eta bertako kidea den Miren Iriartek azpimarratu duenez, alokairuaren prezio altuek, lan-prekarietateak eta baldintza zorrotzek, besteak beste, etorkinek etxebizitza eskuratzeko prozesua zailtzen dute: «Eskuraezinak zaizkien prezioak daude merkatuan, eta nekez lortzen dute etxebizitzarako eskubidea». Maiz, egoera hori etorkinentzat «kolpe gogorra» izaten dela aipatu du, askok lan prekarioak edo gaizki ordainduak dituztelako. Dioenez, inguruan dituzten kontaktuetara jo behar izaten dute gela bat eskuratu ahal izateko.

Horrez gain, gizarte diskriminazioa ere jasaten dutela azpimarratu du Iriartek, egoitza baimena bezalako dokumentuak lortzea prozesu luze eta astuna izaten baita askotan. Izan ere, paperak lortzeko, lehenbizi, errolda eskatzen dute, eta

maiz, ez dute non erroldatu ere izaten. Gainontzean, euskara edo gaztelera ez jakiteak ere are zailagoa egiten du etxebizitza eskuratzeko, izan ere, komunikazioa eta integrazioa bera zailtzen baititu. Iriartek azaldu du faktoreen konbinazio horrek «panorama zaila» sortzen badu ere, etorkinen «erresilientzia eta pertseberantzia» funtsezkoak direla oztopoak gainditzeko.

Elkartearen hastapenak

Siriako gerra eman zenean, 2015ean, gatazka horrek eragindako errefuxiatu krisi egoeran herritarrak elkartu eta elkartasuna antolatzen beharra ikusi zutenean sortu zen Hotz Legazpi. Siriatic desplazatu gehienak Greziako errefuxiatuen kanpamentura eraman zituzten eta beraz, elkartearen lehenbiziako helburua, «errefuxiatuetzi zituzten beharrak asetzea» zen. Lehenbiziako arropa eta material bilketak «erraldoiak» izan ziren, eta lanean jardun dute orduetik: beste elkarre batzuekin batera karabana solidarioak, sentsibilizazio kanpainak, eskoletan hitzaldiak... lehenbiziako momentutik herriaren erantzun «ezin hobea» azpimarratu nahi izan du. ●



Antio hiribideko etxebizitzetzi atzealdeak eraisten

ZUMARRAGA— Eitza auzoa eraberritzeko proiektuaren barruan, Antio hiribideko etxebizitzetzi atzealdeak eraitsi dituzte, lurpean dagoen erreka azaleratzeko. ASIER ZALDUA



21 ETXEBIZITZEN SUSTAPENA

Etxebizitzetzi diseinuan parte hartzeko aukera, erabiliko diren materialak aukeratuz

%60a salduta



Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria A maila



Aldape Etxegileak

ERRESERBATU ZURE ETXEBIZITZA ORAIN

943 814 750
608 524 310

www.aldapeetxegileak.com

Higiezinaren joera berria: zaharra eraberritu berria sortzeko

Izaro Villarreal

Azken urteotan bigarren esku-ko etxebizitza bat erostea, hura eraberritzeko, salbuespena izateari utzi eta hazten ari den joera bihurtu da. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke: obra berriko etxebizitzaren prezioak gora egin dute, eskaintza mugatua dago eskari handiko herri zein hiriguneetan, eta, aldi berean, erosleek beren etxea beren neurrira personalizatu nahi dute. Goierriko eskualdea ere ez da salbuespena, Bai Erreformako profesionalak azaldu dutenez.

Zitzu-bizian hazitako tendentzia honen hastapenak 2008an kokatzen ditu. Higiezinaren booma deritza garai horri eta etxebizitzaren prezioen igoera bizkorreko aldi bat izan zela ziurtatu du, non erreformen enpresetako eskariak zeharo handitu ziren. Dioenez, Goierriko enpresak puri-purian bizi izan zituen aldaketak: 2005-2006 aldian eskualdean etxebizitza berriak eraikitzen hasi baziren ere, 2008an erreformetan espezializatu zirenean lortu zituzten irabazi handienak, eta orduan, esparru horretako eskaria eten-gabe hazi da.

Denborak aurrera egin ahala, antza, proiektu-mota horiekiko interesa zein eskaria nabarmen hazi da, bereziki erreformak behar dituzten jabetzena. Hori arrazoi ezberdinak dela medio gertatzen dela azpimarratu du: orduan etxebizitza berri gutxi eraiki direlako edota dagoeneko merkatuan zegoena oso garestia delako. Egoera horren aurrean, erosleak beren aukerak aztertu



Erreforma bat hastear etxebizitza batean. THIBAUT DEVULDER

eta beren beharretara egokitu daitezkeen bigarren eskuko etxebizitzak bilatzeari ekin dio.

Bakoitzaren beharretara

Goierriren kasuan, gazteek oro har nahiago izaten dute familia-lekuetatik hurbil egotea, eta kasu honetan, hain dira herri txikiak eskualde honetakoak, askotan ez dagoela etxebizitza berri erabilgarririk. Hori dela eta, askok kontuan hartu behar dituzte beren beharretara ego-

kitu daitezkeen propietate zaharrak. Gainera, bigarren eskuko etxe bat erostea eskuragarriagoa izaten da maiz etxebizitza berri bat erostea baino; erreformaren kostua gehitu behar bada ere, askotan inbertsio osoak txikiagoa izaten jarraitzen du. Hori gutxi ez, bigarren eskuko etxebizitza bat eraberritzean, erosleek espazioa beren gustura egokitzeko aukera izaten dute, beren beharretara eta lehentasunetara erabat egokitutako etxea sortuz.



«Ez dugu uste etorkizunean etxebizitza berrien eraikuntza egungo eskaerari erantzuteko adina handituko denik»

BAI ERREFORMAK

Etorkizunera begira, baina, Goierrin behintzat, tendentzia berean jarraituko dela dio, ez duelako ikusten etxebizitza berrien eraikuntza egungo eskaerari erantzuteko adina handituko denik, eta horrek, funtsean, zaildu egingo duelako prezioak egonkortzea edo igotzeari uztea. Hala ere, etxebizitza premiak oraindik ere mantentzen direla jakitun, uste du bigarren eskuko etxebizitzek irisgarriagoa izaten jarraituko dutela. ●



Bai Reformas

ERAIKUNTZAK - ERREFORMAK - ERRESTAURAZIOAK - BARNE DISEINUA

c/Ezkiaga, s/n - Beasain 20200 - T/F: 943 88 76 40 - M: 677 577 339
info@baireformas.com - www.baireformas.com

Jarraitu gure
facebooka



cocoon.eus



BIGMAT URBIL Hiribarren Kalea **34** 20210 Lazkao T 943 008887 **cocoon.eus**